



UKRAINAKO INBASIOAK DESPLAZATUTAKOEI HARRERA EGITEKO GIDA

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERPINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES



SARRERA

Otsailaren 24an Errusiako Gobernuak Ukrainaren inbasioa hasi zuenetik, Eusko Jaurlaritzak, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren bitartez, hainbat ekimen jarri ditu abian, gerratik ihesi Euskadira iristen diren pertsonak leku seguru bat izan dezaten, bertan finkatzeko eta bizitza berri bati ekiteko.

Martxoaren 10ean Lehenengo Kontingentzia Plana onartu zen Ukrainaren inbasioaren ondorioz lekualdatutako pertsonak hartzeko. Apirilaren 1ean berriz, Bigarren Kontingentzia Plana argitaratu zen Eusko Jaurlaritzaren, foru-aldundien, EUDelen eta erakundeen konpromisoa gauzatzen duten ekintza ordenatu eta koherenteen multzo batekin, Ukrainatik datozen errefuxiatuak hartzeko.

Harrerarako eta integraziorako abian jarritako ekimenen artean, indarrean dagoen Kontingentzia Planaren konpromisoetako bat, “Ukrainako gerrak desplazatutakoei harrera egiteko gida” da.

Jarraian Gida aurkeztuko dugu. Aldian behin eguneratuko da, eta hainbat hizkuntzatan eskuragarri egongo da, identifikatutako alderdi interesgarrienei buruzko informazio zehatzarekin: aldi baterako babes-eskaera, erroldatzea, osasun zerbitzuak, enplegu zerbitzuak, LGTBI pertsonen arreta ematea, indarkeriaren edo salerosketaren biktima diren emakumeak.

Gida erakundeen arteko lankidetzaren adibide bat izan da, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren, zehazki, Migrazio eta Asilo Zuzendaritzaren eta Biltzen -Laguntza Juridikoko, Integrazioko eta Kultura arteko Bizikidetzako Euskal Zerbitzuaren zuzendaritzapean eta eraginpean dauden Eusko Jaurlaritzako sailen parte-hartzea du, hau da, Hezkuntza, Osasuna eta Lan eta Enplegu Sailarena.

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailean jarraitzen dugu Europako agintarien eta esperientzia duten erakundeen jarraibideak errespetatzen dituzten ekimenak hartzen, eta, beraz, sustatzen ditugun guztiak bat datoz lankidetza antolatuaren konpromisoarekin.

Europarentzat eta munduarentzat hain zailak diren une hauetan, harrotasuna da Euskadirentzat euskal gizartea erakundeekin lankidetzan aritzeko erakusten ari den interesa, Ukrainatik atera diren pertsona kalteberei laguntzea lortzeko. Eusko Jaurlaritzaren konpromisoa da gure herritarrei erraztasunak ematea modu arduratsuan parte har dezaten errefuxiatuen harreran eta integrazioan.

Bide batez, eskerrak ematen dizkiot euskal gizarteari mundu solidarioagoa eta bidezkoagoa eta Euskadi askotarikoa eta integratzaileagoa eraikitzeko erakutsi duen konpromisoagatik eta laguntzagatik.

Agur bero bat

A handwritten signature in blue ink, reading 'Beatriz Artolazabal', with a horizontal line underneath.

Beatriz Artolazabal Albeniz
Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako
sailburua

I. BLOKEA.

URGENTZIAZKO OSTATUA

Eusko Jaurlaritzak Ukrainako gerra dela-eta Euskadira iristen diren desplazatuak artatzeko sistema bat prestatu du; zeinahi nazionalitate edo administrazio-egoera dutela ere, urgentziaz ostatua behar dutenak artatuko ditu. Harremanetarako:



Gurutze Gorria, 09:00etatik 22:00etara, 945 222 222

Edo aurrez aurre, 10:00etatik 18:00etara, bulego hauetan:

Araba Vitoria-Gasteiz Gaztelako atea, 52	Gipuzkoa Donostia Zorroagako gaina, 41	Bizkaia Bilbao Concha Jenerala, 34
---	---	---

Horrez gain, premiazko egoeretan eta artatu beharreko pertsonak dokumentazioa dutenean, **CEARen telefono-zenbaki** hauetara ere dei dezakete:

Araba 679 051 932	Gipuzkoa 608 012 241	Bizkaia 618 205 421
-----------------------------	--------------------------------	-------------------------------

II. BLOKEA

BIZILEKU-BAIMENA

Otsailaren 24az geroztik Ukrainatik atera direnak administrazio-egoera erregularrean daude 90 egunez. Denbora-tarte horretan, sistema eta zerbitzu publiko gehienak eskura izango dituzte, aldi baterako babes-baimena eskatu duten ala ez kontuan hartu gabe.

NORK ESKA DEZAKE ALDI BATERAKO BABESEKO BIZILEKU-BAIMENA?

1. 2022ko otsailaren 24tik aurrera Ukrainatik atera ziren nazional ukrainarrak eta haien senitartekoak.
2. 2022ko otsailaren 24a baino lehen Espainian egonaldi-egoeran zeuden nazional ukrainarrak eta haien senideak, gatazka armatuaren ondorioz Ukrainara itzultzerik ez badute.
3. Ukrainako zuzenbidearen arabera emandako legezko bizileku-baimen balioduna oinarri hartuta (iraunkorra edo bestelakoa, ikaslea adibidez) Ukrainan legez bizi ziren hirugarren herrialdeetako nazionalak edo aberrigabeak eta haien senideak, beren herrialdera edo eskualdera itzultzerik ez badute.
4. Otsailaren 24a baino lehen Espainian egoera irregularrean zeuden Ukrainako nazionalak, gatazka armatuaren ondorioz Ukrainara itzultzerik ez badute.

1. 2. eta 3. paragrafoetan aipatzen diren pertsonen senitarteko hauek:

- a. ezkontidea edo izatezko bikotekidea
- b. bere edo bere ezkontidearen seme-alaba ezkongabeak, ezkontzaren barruan edo kanpoan jaio diren edo adoptatuak diren kontuan hartu gabe.

- c. gertuko beste senide batzuk, baldin eta familia-unitate gisa elkarrekin bizi baziren desplazatuak etorrera masiboarekin lotutako zirkunstantzien unean eta erabat edo nagusiki haien mende bazeuden.

NOLA ETA NON ESKA DEZAKET ALDI BATERAKO BABES-BAIMENA?

Aldi baterako babes-eskaera aurrez aurre eta pertsonalki egingo dute interesdunek, hiru euskal hiriburuetatako polizia-etxeetan.



Araba	Gipuzkoa	Bizkaia
Vitoria-Gasteiz	Donostia	Bilbao
Oñati kalea, 17	Urumea pasealekua, 17	Gordoniz, 8
Tel. 945 209 633	Tel. 943 449 809	Tel. 944 709 149

Aurretiko hitzordua eskatzeko:

<https://sede.administracionespublicas.gob.es/icpplus/index.html>

Pertsona bakoitzeko hitzordu bat eskatu behar da.

Hiru polizia-etxeetan arratsaldeko ordutegia jarriko da, aldi baterako babesa eskatzeko soil-soilik. Polizia-etxeek behar bezala identifikatutako hizkuntza-laguntzako zerbitzu bat dute, Eusko Jaurlaritzak ematen duena.

ZER DOKUMENTAZIO AURKEZTU BEHAR DUT ESKAERA EGITEKO?

Aldi baterako babes-izapidea egiteko, agiri hauek aurkeztu behar dira:

- Bidaia-dokumentua eta/edo nortasun-agiria
- Zure nortasuna eta nazionalitatea egiazta dezakeen beste edozein agiri
- NANaren neurriko argazkia, hondo zuriarekin
- Adingabeen kasuan, familia-lotura egiaztatzen duen dokumentazioa (jaiotza-ziurtagiria)

Eskabidea egitean, egiaztatzea egingo da, AIZ jasotzen duena (Atzerritarren Identifikazio Zenbakia). Barne Ministerioak eskabidea 24 orduko epean ebatzteko konpromisoa du.

Aldi baterako babesaren ebazpenaren jakinarazpena deskargatzeko, Atzerri-tarraren Nortasun Zenbakia (AIZ) eta espediente-zenbakia sartu behar dira esteka honetan:

<https://www.citapreviadnie.es/citaPrevíaDni/IndexDesplazados.action>

Ebazpena lortu ondoren, berriz eskatu beharko da hitzordua Polizia Nazio-nalean Atzerriarren Nortasun Txartela (AIT) lortzeko:

<https://sede.administracionespublicas.gob.es/icpplus/index.html>

Ukrainako identifikazio-agiriei buruzko gaietarako, interesdunari gomendatzen zaio harremanetan jartzea **Ukrainak Madrilén duen Enbaxadako Kontsulatu**en Atalarekin:



Tel.: 917 489 360 / 917 489 378 / 917 489 382 / 620 641 324 (urgencias)

E-mail: emb_es@mfa.gov.ua / consul_es@mfa.gov.ua

Ronda de la Abubilla kalea 52

28043 Madrid

Ordutegia: Astelehena, asteazkena eta ostiralak 09:20-13:30; Astearte eta ostegunak 14:00-17:45.

Aurrez aurreko arreta errefuxiatuei, aurretiko hitzordurik gabe.

Gainerakoek aurretiko hitzordua beharko dute:

<https://spain.mfa.gov.ua/zapis-na-prijom>

ZER-NOLAKO BIZILEKU-BAIMENA EMANGO DIDATE?

Aldi baterako babesaren onuradunei urtebeteko bizileku- eta lan-baimena emango zaie.

Aldi baterako babesa eta bizileku- eta lan-baimenak automatikoki beste urtebetez luzatuko dira lehenengoa amaitzen denean, betiere aldi baterako babesa deklaratzeko eskumena duen organoak amaitutzat ematen ez badu.

Salbuespenez, beste urtebetez luzatu ahal izango da.

ESKA DEZAKET NAZIOARTEKO BABESA (ASILOA)?

Desplazatua ezin bada Ukrainara itzuli jazarpena jasateko beldur delako bere iritziz politiko zein erlijiosoengatik, edo etnia, nazionalitate, orientazio

sexual edo genero-identitateari lotutako arrazoiengatik, edo lanbideagatik, edo genero-indarkeriaren biktima delako etab., orduan nazioarteko babes eskari dezake. Aldi baterako babes ez da bateraezina nazioarteko babes-eskaerarekin.

Eskaera-prozesu hori luzeagoa da aldi baterako babes eskatzeko prozesua baino, eta, horregatik, garrantzitsua da aurrez aztertzea pertsona bakoitzaren egoera eta etorkizunean jatorrizko herrialdera itzultzeko ezintasuna.

Eskaera egin aurretik, interesdunek prozedurari buruzko informazio gehiago lortu ahal izango dute CEAR, GURUTZE GORRIA, ACCEM eta MPDL elkarteetan.

Aldi baterako babesean bezala, baldin eta eskatzaileak baliabide ekonomikorik ez badu, Nazioarteko Babes Eskatzaileen Harrera Sisteman sartzeko eskatu ahal izango du.



Aholkularitza juridikoa, telefonoz eta posta elektronikoz:

— BILTZEN

- Erabiltzailea tel.: 900 840 890
asesoria@euskadi.eus
- Profesionala: tel.: 94 400 18 09
juridika@biltzen.org

Arreta-orduak : astelehenetik ostiralera, 9:30etik-14.00etara

III. BLOKEA:

ONARRIZKO ZERBITZUETARAKO SARBIDEA

Desplazatuak ez badute baliabide ekonomikorik, laguntza lor dezakete Nazioarteko Babeseko Harrera Sistemari sartzeko eskatuta. Horretarako, ez da beharrezkoa lehenago babeseko bizileku-baimena eskatu izana edo asiloa eskatu izana. Beste eskaera horiek bateragarriak dira, eta geroago egin daitezke.

Euskadin, nazioarteko babeseko harrera-sistemarako sarbidea CEAREk kudeatzen du, helbide hauetan:



Araba	Gipuzkoa	Bizkaia
José Erbina, 2 Vitoria-Gasteiz Tel: 945 266 805	Amezketarrak kalea, 3 Donostia Tel: 943 24 24 83	Baiona, 1 Bilbao Tel: 944 24 88 44

ERROLDA

Errollda udalerri bateko biztanleen erregistroa da. Erroldatzeko, kasuan Errollda udalerri bateko biztanleen erregistroa da. Erroldatzeko, bizi zaren udalerriko udaletxera jo behar da. Erroldatzean, beste administrazio-izapide garrantzitsu batzuk egitea errazten duen ziurtagiri bat ematen da. Ziurtagiri hori ematen ez bada, eskaera aurkeztu izana egiaztatzen duen frogagiria emango zaio.

Pertsona ukrainarrak erroldatu ahal izango dira honako agiri hau aurkeztuz:

- Indarrean dagoen pasaportearen edo Polizia Nazionalak emandako dokumentazioa (aldi baterako babesa eskatu izanaren gordekina edo horren aldeko ebazpena).
- 18 urtetik beherako kasuan heldu arduradun batek lagunduta badaude (ez du zertan izan gurasoa), Polizia Nazionalak emandako dokumentazioa (aldi baterako babesa eskatu izanaren frogagiria edo haren aldeko

ebazpena). Harekin batera joan de pertsona Polizia Nazionalaren aurrean adingabearekin aldi baterako babesteko eskaera aurkeztu zuen bera izan behar du.

- Nolanahi ere, bi gurasoen baimenak ez badaude erroldatzeko, nahikoa izango da gurasoetako batek edo eskaera egiten duen arduradunak erantzukizunpeko adierazpena sinatzea.

Udalek erroldatze sozial edo fikziozkoarako formulak aurreikusi beharko dituzte –dagoeneko araudian aurreikusita daudenak– erroldatzea aterpetxeetan, zentroetan edo etxebizitza jakin batzuetan egiten den kasuetarako.

EUSKAL OSASUN-SISTEMARAKO IRISPIDEA

Ukrainatik Euskadira desplazatutako pertsona guztiek osasun-asegurua izango dute eta osasun-laguntza jasoko dute. Bi egoera aurreikusten dira administrazio-egoeraren arabera:

1. Aldi baterako babesa eskatu dutenei Osasun Txartel Indibiduala (OTI) izapidetuko zaie. OTI horrek Espainia osoan balioko du bi urtez, baina ez du aseguramendua Europara zabaltzeko aukerarik ematen.
2. Aldi baterako babesa eta nazioarteko babesa eskatu ez dituztenei aldi baterako osasun-laguntzaren agiria izapidetuko zaie. Dokumentu hori baliozkoa izango da Euskadin sei hilabetez, eta beste hilabetez luzatzeko aukera egongo da.

Ostatu hartu duten lekutik hurbilen dagoen osasun-zentroan eskatu beharko dute, eskura duten dokumentazioarekin:

- aldi baterako babesa eskatu badute, eskaera aurkeztu izanaren frogagiria edo aldi baterako babesa emateko ebazpena,
- pasaportea, Ukrainako agiri nazionala edo Ukrainako bizileku-baimena,
- errolda-agiria (baldin badu).

EUSKAL HEZKUNTZA SISTEMARAKO IRISPIDEA

Ukrainaren inbasioaren ondorioz desplazatutako eskolatzeko adinean daudenek eskubidea dute Euskadin hezteko eta beren ikastetxeetan matrikulatzeko.

Hezkuntza Sailaren gomendioa da eskolatzea bi aste baino gehiago ez atzeratzea, familia bakoitzaren bizilekuaren egoera argitu arte.

Eskolatze-prozesuan haur horien premiei hobekien erantzun diezaieketen erabakiak hartuko dira, ikastetxeen egoera, harrera-gaitasunak eta baliabideak aztertuta. Ikastetxeek harrera-planak eta material espezifikoak dituzte, erantzun egokia emateko eta ongizate emozionala zaintzeko.

Eskolatzea eskatzeko izapideak edozein ikastetxetan egin daitezke. Esteka honetan zentroen bilatzaile bat dago, hurbilen dagoena aurkitzeko:

<https://ikasgunea.euskadi.eus/eu/buscador-de-centros>

Honako esteka honetan aurki dezakezu eskola-sistemari eta epez kanpoko eskolatze-prozedurari buruzko informazioa (hainbat hizkuntzatan, ukrainera barne):

<https://www.euskadi.eus/euskal-hezkuntza-sistema-familiei-informazioa/web01-a2hikast/eu/>

Gomendagarria bada ere, eskolatzeko ez da beharrezkoa errolda-ziurtagiririk aurkeztea.

EUSKAL ENPLEGU ZERBITZURAKO IRISPIDEA

Ukrainako gerraren ondorioz desplazatutakoek Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren hainbat prestazio eskuratu ahal izango dituzte, bai aldi baterako babes-sistemaren aldeko ebazpena badute, bai 24 ordu igaro badira babes-eskaeraren frogagiria lortu denetik.

Zehazki, enplegu-eskatzaile gisa izena eman dezakete eta Lanbidek ematen dituen zerbitzu guztiak eskuratu, enplegu-eskaintzei nahiz prestakuntzari dagokienez.

Prestazio horien inskripzioa eta eskaera Lanbidek Euskadi osoan dituen bulegoetan eta haren web-orriaren bidez egin daiteke: www.lanbide.eus

EUSKAL GIZARTE ZERBITZUEN SISTEMARAKO IRISPIDEA

Udal Gizarte Zerbitzuek ohiko erreferente gisa jardungo dute lekualdatutako pertsonak gizarteratzeko, hirugarren sektore sozialeko erakundeekin batera. Instalatu eta aste batzuetara, bizi diren zonako oinarritzko gizarte-zerbitzuko gizarte-langilearekin hitzordua eskatzea komeni da.

Zerbitzu hau Euskal Gizarte Zerbitzuaren Sistemaren prestazioetara eta Gizarte Larrialdietarako Laguntzetara (6 hilabetez erroldatuta egon ondoren) sartzeko atea da.

Non aurki daitezke gertuen dauden udaletako gizarte-zerbitzuetako zuzendaritzak?

<https://www.euskadi.eus/directorio-servicios-sociales/web01-a2gizar/es/>

GIDABAIMENA

Ukrainarrek, bai Euskadin aldeztu aurretik daudenek, bai gerra honen ondorioz iristen direnek, aldi baterako babes-sisteman sartu badira, agintari ukrainarrek emandako gidabaimena indarrean badute eta Espainian gidabaimen baliokidea izateko eskatzen den adina badute:

- Balio osoz erabili ahal izango dituzte beren gidabaimenak.
- Ukrainako gidabaimenaren balioa urtebetez luzatuko zaie, aldi baterako babes-lortzen dutenetik aurrera.
- Ukrainako gidabaimena Espainiako gidabaimen batekin trukatu ahal izango dute, hala nahi badute. Horretarako, beren bizilekua egiaztatu ahal izango dute, aldi baterako babes-eskaera eskatu izanaren frogagiriaren bidez edo eskaera ebatztean emandako dokumentazioaren bidez, eta, gidabaimenaren egiaztapenaren orde, eskatzaileak berak sinatutako erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute. Izapide hori astelehenetik ostiralera egin daiteke, 09:00etatik 14:00etara, bulego hauetan:

i

Araba	Gipuzkoa	Bizkaia
Vitoria-Gasteiz Gasteiz hiribidea, 13-15 945 222 058	Donostia Julio Caro Baroja plaza, 2 943 452 000	Bilbao Barroeta Aldamar, 1 944 421 300

MASKOTAK

Ukrainatik maskotekin (txakur, katu, hudo eta abar) iristen diren desplazatuek lehenbailehen jakinarazi behar diete foru-aldundietako abeltzaintza-zerbitzuei eta albaitarien elkargoei. Jakinarazpen hori desplazatutako pertsonak berak egingo du zuzenean edo albaitaritza-kliniken bidez (gomendatutako bidea), animalia guztiek pasa behar baitute kontsulta klinika horietatik.

Animaliek, kasu guztietan:

- Albaitariaren kontsulta pasako dute: lehen balorazioa, desparasitazioa Praziquantel farmakoarekin, kontrol serologikoa eta txertaketa-jarraibideak.
- Behar bezala identifikatuta eta erregistratuta ez dauden animaliak ofizialki identifikatu eta erregistratuko dira.
- Derrigorrezko berrogeialdia hasiko dute programari atxikitako zentro publiko edo pribatu batean: animalien kontrola eta zaintza, eta dagozkion albaitaritza-azterketak.

Ukrainatik datozen animaliekin jarduteko protokoloa betetzerakoan, eta ukrainar desplazatuak jasaten ari diren egoera berezia dela ikusita, protokolo hori gauzatzen sortutako kostuak diruz lagunduko dira, eta, beraz, doakoak izango dira.

Hauek dira izapide horiek egiteko jakinarazpen-, kontaktu- eta informazio-puntuak eta moduak:



Araba	Gipuzkoa	Bizkaia
servicioganaderia@araba.eus 945 181 818	abeltzaintza@gipuzkoa.eus 943 112 987	servicio.ganaderia@bizkaia.eus 944 066 887

IV. BLOKEA:

ONARRIZKO ZERBITZUETARAKO SARBIDEA

FAMILIA-ERREFERENTERIK EZ DUTEN ADINGABEEN ARRETA

Foru-aldundiak arduratzen dira familia-erreferenterik (guraso edo legezko ordezkari) gabe iritsitako adingabeen egoera sozio-familiarraren balorazioa egiteaz, eta beren gain hartzen dute behin-behineko zaintza. Era berean, haurrak eta nerabeak familiarekin batera lekualdatu badira, udaleko gizarte-zerbitzuek, legez ezarritako prozeduraren arabera, babesgabetasun-faktore edo -adierazle posibleak atzematen diren egoerak baloratuko dituzte.

Bestalde, guraso edo legezko ordezkarien kargura ez dauden adingabeak hartzen dituzten familien egokitasunaren balorazioa egingo dute, aldeztu aurretik aldi baterako harrera-programetan parte hartu ez dutenetatik hasita.

Goian deskribatutaken moduko edozein kudeaketa egiteko, harremanetan jarri behar da haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko lurralde-zerbitzuekin, eta, hala badagokio, Eusko Jaurlaritzarekin:



Araba acogimiento@araba.eus Tel.: 945 121 060	Gipuzkoa familiaharrera@gipuzkoa.eus Tel.: 943 112 522	Bizkaia ume-infancia@bizkaia.eus Tel.: 946 082 971 946 082 968 944 067 969
Familia eta haurren Zuzendaritza (Eusko Jaurlaritza) Adingabeak@euskadi.eus		

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

Ukrainako gerraren ondorioz desplazatutako emakumeek eta neskatok informazioa eta aholkularitza behar badute emakumeen aurkako indarkeriarekin lotutako gaietan –indarkeria hori bere bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindakoa izan– edo sexu-askatasunaren aurkako delituren bat pairatu badute, zerbitzu honekin jar daitezke harremanetan:

- SATEVI, Indarkeriaren biktima diren emakumeei telefono bidezko informazioa eta arreta emateko zerbitzu espezializatua: 900 840 111

Telefono horrek eguneko 24 orduetan eta asteko egun guztietan funtzionatzen du. Emakumeen aurkako indarkerian espezializatutako profesionalek ematen dute arreta, doakoa da, eta 51 hizkuntzatan ematen du arreta, besteak beste, ukraineraz eta errusieraz. Arreta berehalakoa izango da, anonimoa, konfidentziala eta doakoa, eta ez du arrastorik uzten telefono-fakturan.

LGTBI PERTSONAK

LGTBI kolektibokoak diren Ukrainako desplazatuak, premia espezifikoren bat badute eta beren orientazio edo identitate sexualarekin lotutako gaietan aholkularitza eskatzen badute, Berdindurekin harremanetan jar daitezke; lesbianeiei, gayei, transei, bisexualei eta intersexualei informazioa eta arreta emateko Eusko Jaurlaritzaren zerbitzu publikoa da Berdindu.



Berdindu Gasteiz Ramiro de Maeztu, 3 01008 Gasteiz 945 029 079 y 617 810 471 berdindu.araba@gmail.com	Berdindu Bilbao Ramón y Cajal, 2 48014 Bilbo 946 453 322 y 617 813 089 berdindu.bizkaia@gmail.com	Berdindu Donostia Mikelete pasealekua, 20 20008 Donostia 943 216 551 y 688 7698 65 berdindu.gipuzkoa@gmail.com
--	--	---

ORDUTEGIA: Astartetik ostiralera: 10:00etatik 13:00etara eta astelehene-tik ostiralera: 16:00-19:00